

MERKATU SEGMENTAZIOA

Toki bakoitzaren kliman oinarrituta eraikiko ditugu etxebizitzak. Hainbat ezaugarri hartu behar dira kontuan, eguneroko eguziki orduak, ekaitzak agertzeko probabilitatea, erliebearen egitura.

Demografikoa: Etxebizitza hauek bereziki gazte eta adineko jendearentzat daude zuzenduta. Alde batetik, etxebizitza hauek gazteei norberaren etxea edukitzeko ahalmena emango diete, gainera honek belaunaldi berriak ingurumenarekin inplikatzera bultzatuko dituzte. Beste aldetik, etxebizitza hauek adineko pertsonentzat aukera ezin hobe izango da jubilazio lasai eta merke bat edukitzeko, ingurumenarekin elkartasuna adierazten duten bitartean.

Soziologikoa: Etxebizitza edo instituzio berde bat desio duten edozeinentzat da, baina oso eskuragarria da soziologikoki sektore ez dirudunentzat, eta talde demografiko honentzat bideratuta daude bereziki, etxebizitzaren arazoa ezagutu eta ekonomikoki jasagarria den modu batean soluzio bat bilatu nahi dugu, etxe merkeak egin nahi ditugu etxebizitza eskuragarria sustatzeko.

Psikografikoa: Ekofom-ek eskaintzen dituen etxebizitzak helburu argi bat dute, ingurumena ahal den gehien errespetatzen den bitartean etxebizitza eskuragarriagoak sortzea. Hori kontuan hartuta, proiektu hau ideiaren bizi-estilo eta balore berdinak dituzten pertsonentzat bideratua dago.

